

Bidasoa ibaia, urbide ala oztopo?

Hondarribia, 21. zk., 1988-05: 7.

Aita Larramendik* Gipuzkoako ibaiez idazten duenean (Bidasoa, Bertandegi, Urumea, Oria, Urola, eta Deba) XVIII, gizaldiko pentsamoldez hitzegiten digu, noski.

Horrela du bere obra osoak lekukotasun baten balio aberatsa.

Bidasoaz esaten digu bera dela, muga izatez gainera, emaritsuena eta uholdetsuena, eta Bera ingurua arte nabegarria dela, eta igo eta jeitsi ibiltzen direla alak deitzen dieten gabarrak.

Hemen aipatzen du bere malizia zorrotzarekin honako hau: Orain gutxi ibili ziren batzu ibaia zabaltzeko asmotan, nabigarriago izan zedin, erosoagoa alentzat, San Esteban (sic), gaur Santesteban edo Doneztebe, herriraino heltzeko modua eginaz. Honetarako, noski, ibaian aurkitzen diren harri handi batzu apurtu egin behar zirela. Obra honekin, zion Larramendik, askoz ere erosoago egingo zen Nafarroarekin merkataritzako harremana... A!, baina hau Frantziari Espainiako bideak ireki eta erraztea suposatuko luke, batez ere gerra denboran. Zoritzarreko gerra! Eta hau kontuan zuela esan zuen Espainiak Nafarroa armaz hartu eta hemen jarri zuen Gajes izeneko Virrey batek: Bidasoa ibaia ireki beharrean harkaitz handiaz itxi egin behar litzatekela, eta ahal izango balitz, mendiekin itxi, sekula santan nabigarria izan ez zedin.

Hau eginez gero: akabo ibaia, akabo Hondarribia!

Zorionez, ordea, Virrey madarikatu hau ez zen Jainkoa, eta Larramendik dion bezala: Bidasoa ibaia Pirineotan jaio, eta Nafarroako herri batzu ur garbiz buzti-gozatu eta gero jarraitzen du Endarlazatik Gipuzkoara sartuz, eta Irun eta Hondarribiako badia ederra bide, Higereko lurmuturraren aurre-aurrean itsasoratzeko.

Manuel Larramendi, euskaltzale handiak Euskalerrria osoa zuen maite; erakutsi zuen ondo aski bere obra idatzia eta bere jokabidearekin; hala ere, Gipuzkoa zuen kuttunena, eta ez zuen Probintziako lekurik maitasun handiarekin aipatu gabe utzi.

* *Corografía de Guipúzcoa* (1754), EKINek Buenos Airesen birrargitaratua 1950an.